



Nora Barroso

◆ EHUko IRAKASLEA ETA ARGIAKO BLOGARIA

Gorputzaren mapa esploratzen

3 URTEKO ALABAREKIN BAINONTZIAN NENGOEN:

– Ama, zuk pototarekin jolasten al duzu?

Mikrosegundo batez zalantzi egon nintzen. Bere eraikuntza pertsonalerako egokia zen zerbait bota nahi nuen. Teorietatik at naturaltasunaren eta zintzotasunaren bidea hartu nuen.

– Bai maitia, baina ez beti, momentu batzuetan.

Uraren soinua besterik ez zen entzuten. Alabaren aurpegiari begira geratu nintzen, eta barne bakarrizketan...

“Ondo egin ote dut? Baietz esan diot, baina ezetza sartu dut gero. Ene, ezetzaren kontrako teoria ugari daude hortik, ea gaizki egin dudan! Baina kontua da ez dudala etengabe egiten”.

Alaba urari so zegoen, kontzentratua.

“Nora, egia esan diozu eta kito. Ez da lotsatzeko kontua, gure bizitza sexualaren parte da eta! Nola hasi zinen zu ba zure gorputza esploratzen?! Ba horixe”.

Konplizitate horrekin jarraitu nahi nuen eta hauxe galdetu nion:

– Eta zuk? Pototarekin jolasten al duzu?

– Bai ama, batzuetan.

Galdetzen jarraitu nuen.

– Eta nola jolasten duzu pototarekin?

– Kili kili kili.

“Latza! Ezingo nuke hobeki adierazi”, pentsatu nuen eta izugarriko barne poza sentitu ere bai.

Benetako pasarte hau txikieria izan zitekeen, baldin eta pertsona baten sexualitatearen lehen urratsen adierazlea izango ez balitz. Eta horra gurasoaren zalantza, ardura, urduritasuna... izango duen erantzunaren inguruan.

Kontuak badu bere garrantzia

gainera, haurtxoak eta haurrak poliki-poliki haien gorputzaren mapa osatzen joaten baitira. Esploratu gabe geratzen diren zatiak zulo beltzak bilakatzen dira eta zulo horiek (ezagutza faltaren metafora) haien buruetan ukazio txiki/handia sortu dezakete. Hainbat kasutan, ezabatze horiek sexualitate aske eta osasuntsuaren oztopo bihurtu daitezke. Gorputzaren mapa osatzeko informazioa bide desberdinetatik jasotzen dute. Bide horiek jorratzean haurra aske uztea inolako epaiketarik gabe eta bidelagun izatea aukeratako bat da. Haien barne indarra sendotzen laguntzea beraien aukerak bere egin ditzaten eta zoriontasunaren bidetik euren barne sorkuntza garapenetik eraikuntzak sortu ditzaten (kontuan hartuta haien zoriontasuna beraiena dela eta ez duela zertan gurearekin zerikusirik eduki behar).

Benetako pasarte hau txikieria izan zitekeen, baldin eta pertsona baten sexualitatearen lehen urratsen adierazlea izango ez balitz. Eta horra gurasoaren zalantza, ardura, urduritasuna... izango duen erantzunaren inguruan

Gurasooi edo haurren inguruan bizi garenoi ez gaitzala beldurak edo ardurak blokeatu. Utzi diezaiegun haurrei guri irakasten eta hazi gaitezen beraiekin batera. Bidaia osasuntsua izan dezagula! ■

IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Maddi
Gallastegi
Osa



ALBERTO ELOSEGI /XDZ

Doinua: Txikitatikan edukia dut.

#ResistGasteiz

Inork diktatzen, nork inposatzen dizkigu lege arrotzak?
Nork asumitzen ditu estatu zapaltzaileen morrontzak?
Elkarri helduz besoetatik estutu genitun hortzak;
oihu, negar, kolpe hotzak,
“ta segi aurrera!” hotsak...
Txiki nahi gaitu boteredunen gorrotoaren ahotsak,
baina maitasun neurrigabeaz bete genitun bihotzak.

Esan zenidan erresistentzi oro denez disidente,
esan zenidan borrokatu dituhamaika eta bat frente,
“Ni izkutatu nintzen zuk plazak har eta zenitzan bete”.
Gure artean zaudete,
Galeanok zion fuerte:
Kontzientzia umiliatu nahi diguten aldiro tente
altxako gara duintasunez,
harro ta desobediente!

Mozorro eta nortasun hainbat elkarri kateatzean,
“Ni Igarki naiz”, “Ni naiz Aiala!”,
“Ibon naiz!” oihukatzean,
bi mundu bereiz suma zitezkeen murreraren ertzean;
margo laranja lehertzean horren argazki beltzean,
irudimenaz etorkizun bat aurrez irudikatzean,
bortxaz iluntzen den iragan bat utzi nahi dugu atzean. ■